

Ukipen hizkuntzak

1. Oinarrizko datuak

- **Irakasgaia:** Ukipen hizkuntzak
- **Modulua:** ME II, Arloari dagozkion prestakuntzarako osagarriak
- **Izaera:** Hautazkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Irantzu Epelde

2. Irakasgaiaren laburpena

Kontaktu egoeran dauden hizkuntzen artean ohikoak diren zenbait gertakari azalduko dira ikasgai honetan. Hizkuntza aniztasunaren ikerketatik abiatuta, kontaktu egoeran dauden hizkuntzen ezaugarriez jabetzeko aukera izango dugu. Leku handia hartuko dute euskara-gaztelania eta euskara-frantsesa hizkuntza pareek, eta arreta berezia jarriko dugu hezkuntzan.

3. Gaitasunak

Ikasgai honetan, gaitasun hauek landuko dira berariaz:

- Hizkuntzen aniztasunari eta auzo hizkuntzen arteko harremanari buruz hausnartzea.
- Hizkuntza ukipena ikertzearen garrantziaz konturatzea, arreta berezia jarrita eskal eskolaren kasuan.
- Hizkuntza aniztasunaren ikerketatik abiatuta, kontaktu egoeran dauden hizkuntzen ezaugarriez jabetzea, bereziki kontuan hartuz euskara-gaztelania eta euskara-frantsesa hizkuntza pareen kasua.
- Elkarrekin gertatzen diren hizkuntzen arauak ezagutzea eta, testuinguru soziolinguistikoaren edota baldintza pragmatikoen arabera, haiek moldatzen jakitea.
- Kontaktu egoeran dauden hizkuntzen presentzia eta erabilera eskolaren esparruan antolatzeke dauden moduak zein diren jakitea: eredu elebidunak eta hizkuntzen curriculum integratua.
- Askotariko informazio iturriak erabiltzea, haietatik informazio baliagarria ateratzeko eta informazio hori kritikoki aztertzeke, ebaluatzeke eta interpretatzeko.

Horietaz gain, titulazioari dagozkion beste gaitasun hauek ere (oinarrizkoak, zeharkakoak, orokorrak eta espezifikoak) landuko dira:

[CB7] Ikasleek beren ikasketa-arloarekin lotutako testuinguru zabalagoetan (edo diziplina anitzekoetan) eskuratutako ezagutzak eta arazoak konpontzeko duten gaitasuna aplikatzen jakitea.

[CB10] Ikasleek ikasteko trebetasunak izatea, beren kabuz eta autonomiaz ikasten jarraitu ahal izateko.

[CT1989] Espezialitatearen eremuko berezko lengoaia zientifikoa erabiltzea.

[kodea] Ikas-irakaste prozesua planifikatzea, garatzea eta ebaluatzea, heziketa-prozesuaren bidez irakasgai bakoitzari dagozkion kompetentziak eskuratzeko. Horretarako, ikasleen hasierako mailari eta prestakuntzari erreparatuko zaie, modu indibidualen zein zentroko beste irakasle eta profesional batzuekin elkarlanean.

[kodea] Infomazioa (ahozkoa, ikus-entzunezkoa, digitala...) bilatzea, lortzea, prozesatzea eta komunikatzea; informazio hori ezagutza bihurtzea eta ikas-irakaste prozesuetan espezializazioari dagozkion materietan aplikatzea.

[CE1573] Espezializazioari dagozkion ikasgaien plangintzan, irakaskuntzan eta ebaluazioan esperientzia hartzea.

[CE1581] Ikasleen nortasunaren garapenari eta ikaskuntzari eragiten dioten balizko disfuntzioak ulertzea.

[CE1582] Ezagutza, trebetasun eta gaitasun intelektual eta emozionaletan oinarritutako proposamenak egitea.

[CE1583] Hainbat gaitasun eta ikasteko erritmo dituzten ikasleei eragiten dieten hezkuntza-egoerak identifikatzea eta planifikatzea.

[CE1505] Ikasleen ikasteko gaitasunean eta eskola-errendimenduan eragiten duten faktoreak eta prozesuak identifikatzea eta baloratzea.

4. Irakasgai-zerrenda (gaitegia)

1. Hizkuntza aniztasuna munduan eta Euskal Herrian.
2. Hizkuntza kontaktua gizartean: hizkuntza ordezkapena, indarberritzea eta eskolaren papera.
3. Hizkuntza kontaktua eta eskola: hizkuntza gutxituen tratamendua eskolan eta irakaskuntza ereduak.
4. Bi/hainbat hizkuntza elkarrekin gertatzen direnean ohikoak diren hizkuntza ondorioak.

5. Euskara auzo hizkuntzekin kontaktuan: euskara-gaztelania eta euskara-frantsesa pareen kasua.

5. Bibliografia

Oinarrizko bibliografia

- Hickey, R. (arg.). 2012. *The Handbook of Language Contact*. Oxford: Wiley-Blackwell.
- Hualde, J.I. & J. Ortiz de Urbina (arg.) 2003. *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Thomason, S.G. 2001. *Language Contact: an introduction*. Edinburgh: Edinburgh University Press.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Aldekoa, A. 2018. Gure Ikastola en tres languages: the teaching and learning of trilingual oral expository skills. *Theory and Practice of Second Language Acquisition* 4-2, 73-92.
- Bakker, P. 2003. Mixed languages as autonomous systems. In Y. Matras & P. Bakker (arg.) *The Mixed Language Debate: Theoretical and Empirical Advances. Trends in Linguistics* 145. Berlin: Mouton de Gruyter, 107-150.
- Berliner, D. 2012. Multiple nostalgias: the fabric of heritage in Luang Prabang (Lao PDR). *Journal of the Royal Anthropological Institute* 18, 769-786.
- Heine, B. & T. Kuteva. 2005. *Language Contact and Grammatical Change*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Idiazabal, I., Manterola, I. & Diaz de Gereñu, L. 2015. Objetivos y recursos didácticos para la educación plurilingüe. In García-Azkoaga, I. & I. Idiazabal (arg.), *Para una ingeniería didáctica de la educación plurilingüe*. Bilbo: UPV/EHU, 39-59.
- Konadu, K. 2010. *The Akan Diaspora in the Americas*. Oxford: Oxford University Press.
- Manterola, I. & Berasategi, N. 2011. Hizkuntza gutxituentzako irakaskuntza-ereduak. In *Hizkuntza gutxituen erronkak*. Bilbo: UEU, 77-101.
- Muysken, P. 1997. Callahuaya. In Sarah Thomason (arg.) *Contact Languages: A wider perspective*. Creole Language Library 17. Amsterdam: John Benjamins, 427-448.
- Thomason, S.G. & T. Kaufman. 1988. *Language Contact, Creolization, and Genetic Linguistics*. Berkeley: University of California Press.
- Weinreich, U. 1953. *Languages in Contact: Findings and Problems*. New York: Linguistic Circle.